

KULTURA ANJEL ALKAIN AKTOREARI ELKARRIZKETA • GEHIGARRIA TXIKIBARREN
KIROLA IÑIGO LARIZEK LAUGARREN ALDIZ IRABAZI DU SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

BARREN

ASTEKARIA



ANDER GOIKOETXEA (J.D. ARRATE) ETA UNAI ARRIETA (C.D. BIDASOA)

*Bi elgoibartar munduko
eskubaloari ligarik onenean*



• Bartzelona
 Marsella
 Genova
 Napoles
)». Messina
 Tunez
 • Mallorca

Udara baino lehen
 kupoiak banatzen hasi ginen.
 Bete zituztenen artean
 irailaren 15ean zozketa egin eta
 Elgoibarren jaio baina Mutrikun bizi den
GAIZKA ENDEIZA izan da saritua.



Gaizka Endeiza

emaztea eta alabarekin.
 Lau izarreko European Stars
 itsasuntzian 7 eguneko bidaia
 egingo du Mediterraneoan zehar.

VOes Bilbao Express



Lufthansa

City Center



ingurumena
 Zure esku dago

INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?

Eman
 ezazu izena,
DOAN,
 GAP Programan

GAP (Ekintza Plan Globala)
 programan parte hartzen
 duten etxeek %20 aurreztu
 dezakete urteko gastuetan
 eta eskuratu ahal dute
 etxea ekologikoa dela
 agiazatzen duen Nazio
 Batuen ziurtagiria

(Debabarrenako etxetarako)
 Ondorengo datuak gutunazal hitaen sartu, zehaztu jener, eta helbide honetara bidali:
GAP-BUSKADI, 308 postea-kutxa, 48000 Bilbo
 Izena - abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Posta-kodea:.....
 Herria:.....
 Tfno:.....



Debegesa
 943 82 01 10



www.ingurumena.net/gap



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Gipuzkoako Gobernuko Departamentua
 Diputacion Foral de Guipuzcoa



Norberaren datuak kolektatzen ditu. Diru mugatuak jartzen ditu.

40 URTE 40 ISTORIO

la^d ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELK ARTEA



31 ATXUTXIAMAIIKA!!

Ba al dakizue Atxutxiamaikak zer esan nahi duen? Lasai, guk ere ez dakigu-eta. Dakiguna da Elgoibarren bakarrik jolasten zen jolas baten izena dela. Plaza Handiko arkupeetan jarduten genuen sasoi batean umeok "atxutxiamaika bale-bale" jolasean; baina, zoritxarreko ezbehar baten ondorioz, jolasa bertan behera geratu zen, betirako.

1995ean aurkeztu genuen Atxutxiamaika Begirale Taldea, aurretik lanean hasita bageunden ere. Gure nahia jolasa, Elgoibarko umeak eta euskara soka berean lotzea zen. Hirurak nahasian jartzea, bat eginda. Izan ere, Atxutxiamaikaren helburua Elgoibarko umeek euskaraz jolastea da; euskaraz ondo pasatzea; lagun berriak euskaraz egitea; euskaraz gizarteratzea, azken finean.

Zenbat ume eta begirale pasa ote da urteotan Atxutxiamaikatik! Aste Santuan, udan, Gabonetan, asteburuetan, urte osoan zehar izaten dugu motiboren bat umeekin batera ondo pasatzeko. Iaz, adibidez, 1.600 aisialdi ordu prestatu genituen eta 1.000 ume inguru hurreratu zitzaizkigun.

Eta hauekin lan egiten duten begiraleak? Bai, begiraleak dira umeekin batera jolasean jarduten dutenak (beraiek lanean badihardute ere). Hirurogei begiraletik gora izan ditugu azken bederatzi-hamar urteotan. Neskak gehienak, tartean mutilik izaten bada ere. Estimatzekoa benetan herriko gazte hauek egiten diharduten lana. Umeekin lan egiteak zer ematen dien galdetuta, zera erantzun dit Atxutxiamaikako zuzendaria den Nerea Oñederrak: "Hasteko, gustatu egin behar jatzu umiekin lan egitea. Neretzat umiekin ibiltzia gozada bat da. Umiengandik jasotzen dotena ezin da hitzez esplikatu". Ea luzaroan mantentzen den umeen eta begiraleen arteko hartu emana.

Imanol Larrañaga

iritzia



Karramarroak bezala

Garbi dago gizartean oihartzuna izan nahi dutela. Ona ala txarra, hori gutxienekoa da. Iritzi publikoaren kontra joatea, atzera pausoak ematea, beti atzera, karramarroak bezala. Kontua, jendearen ahotan egotea da. Gutxi dira Vatikanoa baino erakunde zaharkituagoak. Gutxi dira Vatikanoa baino atzerakoiagoak. Gutxi, oso gutxitan tokatzen da parean gizakiaren berezko garapenaren kontra doan jendeak lotsagorritu gabe jo eta ke egitea emakumearen kontra, berdintasunaren kontra, sexualitatearen kontra eta abar eta abar. Iritziak iritzi mingainari eragitea gustuko dute askok, batere balio ez duten hitzak josteko bada ere. Iritsi berria da azken erabakia: elizan txalo egitea debekatuko dute. Hara, Vatikanok ez du sortu zenetik debekuak eta debekuak jarri beste eginbehar inportanteagorik izan, antza. Bizitzaren alde daudela aldarrikatuz abortoa gaitzetsi egiten dute baina, era berean, ehunka, milaka haur txiki gosez eta HIESak jota hiltzen den mundu honetan ez daude prest kondoiaren alde agertzeko. Txirotasuna eta umiltasuna aldarrikatzen duten horiek, Vatikanoa urrez eta diruz josia daukate. Ustez Egia absolutuaren eta munduaren sorreraren giltza daukatenez bekatu berriak sortzen eta infernuaren zigorra aldarrikatzen ematen dute denbora. Eta orain, azkenik, neskei debekatu egin diete aldarearen inguruan egotea. Noski, Evak eraman gintuen infernura sugearen tentazioan erori zelako. Ni txikia nintzenean, Meza nagusira joaten ginen domekero gitarra hartuta aldare ondoan abestera eta txaloak egitera. Neskak, txaloak eta aldarea, gaur egungo hirukote debekatua Baina haiek duela 20 urteko garaiak ziren. Oraingo hauek baino moderno eta irekiagoak, dirudienez. Atzera, karramarroak bezala atzera.

Jasone Osoro

Kexak	5
1110tZ MotZ	10
gehigarria	13
kiRolAk	20
aGenda	24

Azabienak

Agustin Alonsok pasa den asteko BARREn egin zituen adierazpen batzuk argitu nahi ditu. Gaztia naiz barren gehigarriaren barruan egindako elkarriketa batean "San Frantzisko kalean 14-15 urte bitarteko gazteak pilatzen dira eta beldurra ematen du bertatik pasatzeak" aipatzen zuen. Honez gain taberna batzuen izenak ere aipatu zituen, "nere asmoa ez zen inori ezer leporatzea, gazte pilaketa handienak ematen diren lekua zehazteko lagungarri gisa bakarrik aipatu nituen taberna izenak, gunea zehazteko, alegia. Inor kaltetua sentitu bada hori ez zen nire asmoa izan".

ELGOIBAR MUNDUARENTZAT

Igande gaua, etxean. Ezin lorik egin eta BARREna nire alboan: ederto. Baina ezin izan nuen lehenengo orritikan pasa. Zer irakurri? Eta "Elgoibar elgoibartarrentzat" aurkitu behar. Jesus, Maria ta Jose!

Behitu, M.A.A. Elgoibar betidanik izan da martxa herria. Orain dela gutxi aldizkari batean irakurri naban 25 urte badirela mobida hau hasi zela. Elgoibarren lasai egon nahi dezula diozu, "Maalako parkean egon, San Frantzisko kalean ibili...". Sei egun ditzuzu astean zehar hori egiteko. Egun bat asko eskatzea al da? Jende mordo bizi da zapatuko mobida dela-eta. Jende hori jatekorik gabe utzi nahi dezu, ala?

Egia da gauza oso desfasatua dagoela, hortan ez dizut arrazoirik kentzen, eta neurriak hartu beharko lirakeela. Baina zer motako neurriak? Neurri polizialak ez behintzat. Arazoa askoz sakonagoa dela uste dut nik. Gazteak ez dira horrela konportatzen gazteak direlako, horretara bultzatuak izan direlako baizik. Gaur egun gazte baten dibertsioa zapatuko juergara murrizten da, eta horren ondorioa dira zuk aipatutako "mozkor-mozkor eginda, drogatuta..." dauden horiek. Ez dut uste debekuekin hori aldatzea posible izango danikan, baina bai gazteei beste hezkuntza eta batez ere beste aukera alternatibo batzuk eskainiz gero (gai sakonegia hau lau lerrotara murrizteko, tamalez).

Eta hau, gazte xume baten iritzia besterik ez da, baina ez nuke agurtu nahi M.A.A-ri gauza bat gogoratu gabe: Fasismoa ideologia okerra dela danok dakigu, baina ez Gobernu espainolarena bakarrik. Besterik gabe, Elgoibar munduarentzat!

Aitor Juaristi Gomez

EINBIOU-KO LAGUNEI

Udako oporrak amaitu eta gero bilera bat ospatu genuen. Kurtso hasierako bilera horretan herritarrekiko konpromezua, hau da, gure Herri Programa martxan jartzeko lehenengo pausuk eman genituen.

Horrela, 5 ekimen hauek aurrera eramateko hainbat lagun hasi da lanean: euskaraz bizitzeko eskubidea, naziotasuna, etxebizitzaren arazoa, ongizatea eta Aita Agirre eraikuntza eta Plaza Txikiaren berreraiketa.

Ostegunean, hilak 23, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan bilduko gara berriz arratsaldeko 19:30etan. Arlo desberdinetan emandako aurrerapausuen berri emango digute.

Zure presentzia garrantzitsua da denon artian einbiou eta!!

Elgoibarko Einbiou Herri Plataforma

Urruzunoren begi ezkutua

Kutxidazu bidea, Isabel



Orain zortzi bat urte izan zen. Amak ekarri zidan. Liburu mehea, azal ilunekoa. Atze eta aurre zein baino zein sinpleago. Orduan ohi nuen legez, hurrengo egunerako utzi nuen irakurketa. Ondoko egunean ekin nion. Eta gustatu. Barre egin nuen. Hasi eta bukatu, gau bakarrean. Artean ere hizkuntzalari senik ez nuen eta erronka handizat neukan irakurketa.

Ordu ezker, makina bat aldiz irakurri dut. Ez bat, ez bi, ez hiru aldiz, hitzek duten zentzu osoan hamaika bat aldiz irakurri dut. Ilunalditik ihes egiteko bide izan da zenbaitetan. Inguruko zenbaitek esan dit, Sagastizabalen lanari buruzko tesia egingo dudala.

Baina hitzek haratago naramate, ahal bada behintzat.

Neurri handi batean, bizitzak berak eta ingurukoek "kutxitako" bidea egiten dugu. Nirea osatzeko hamaika harri jarri behar izan dut. Familia, lagunak, ikasketak, lana, kirola eta liburu bat.

Ainhoa Lendinez

RR

Ba

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
. 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topaquea.com
Helbide informatikoa:
www.topaquea.com/barren
ARGITARATZAILA
Elgoibarko Izarra

LAGUITZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN AROURADUNA Maite Urtarte PUNIZIZATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue GERENTZIA JOT1 Peli Uriguen KOLARORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduarne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA GS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Eki E1GOIBARKO ARR

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.




zig kutxa

2'DANOBAT
MACIUI.15 IBERFLONTIENTA

GOITI
GRUPO DANOBAT

ESTARTA

- Herritar batek Txankakuako autobus geltokian jarri duten markesina berria eskertu nahi du: "Aspaldian zegoen markesina berriaren beharra, eta azkencan jarri dute. Askotan egoten naiz autobusaren zain, eta eskertzekoa da. Aurrekoa dena puskatuta zegoen, eta euria egiten zuenean, ezin zen bertan egon. Ea jendeak zaintzen duen!".
- 14 urteko gazte koadrila batekoek, Disko Festa txalotu nahi dute: "Sekulako giro polita egon zen larunbatean Madalako parkean. Dantza mordoa egin genuen Disko Festan, eta oso ondo pasatu genuen. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak, ea hurrengo batean ere antzerako zer bait antolatzen duten!".



* Emakume batek esan digunez. Elgoibarren zailtasun handiak dauzka umearen kotxearekin ibiltzeko: "Pilar ikastetxera igotzeko, edo Merkatu Plazara joateko eskailerak daude sarrera guztietan, eta umearen kotxearekin sartzea ezinezkoa da. Sarritan, errekaduak egin behar ditudanean, norbaitek zaindu behar izaten dit umea Merkatu Plaza atarian. Aspalditik datorren arazoa da, eta ez dut uste aldapak egitea hain zaila denik".

- Barrenera etorri zen gizon bat, alkantarilarekin trabatu eta lurrera erori zen, izan ere, gure erredakzio aurreko alkantarila oso egoera txarrean dago: "Muturrez aurrera erori naiz, eta sekulako kolpea hartu dut. Alkantarila altxatuta dago, eta trabatu egin naiz. Oso arriskutsua dago ingurune hau, eta edonor erori daiteke. Jende asko etortzen da Barrenera, edo alboko komunetara, eta alkantarila konpondu beharko lukete".



Lagunak kalean,

Espainiako Asobal liga munduko eskubaloia ligarik onena dela diote. Mundu mailako jokalaririk onenek jokatzen dute bertan eta Europa mailako txapelketetan bertako taldeok dira jaun eta jabe. Elgoibarrek ere badu ordezkaritza txiki bat liga indartsu eta lehiakor honetan. Ander Goikoetxeak Eibarko J.D Arraten jokatzen du eta Unai Arrietak Irungo C.D. Bidasoan. Biak dira gazteak (23 urte) eta talde ezberdinetan jokatzen duten arren, lagunak dira pistatik kanpo, koadrila berekoak hain zuzen ere. Izan ere, elkarrekin hasi ziren eskubaloian jokatzen 8 edo 9 urte besterik ez zituztela. Urte asko pasa dira baina patuak elkarren aurka jokatzen jarri zituen duela gutxi, bata Arrateren koloreak defendatzen eta Bidasoarenak bestea. Tamalez, arrazoi desberdinak tarteko, ez bata ez besteak ez zuen parte hartu Arratek irabazi zuen derbyan. Izango dute astirik eta aukerarik, ziur.

Asobal Ligan jokatzen duzue, munduko ligarik onenean. Espero al zenuten horren urrun iristea?

Unai Arrieta: Ez, jubencil mailan fitxatu ninduen Bidasoak eta gauzak naturaltasunez gertatu dia ordutik, ez da bapateko kontua izan.

Ander Goikoetxea: Sei urte daramatzat Arraten eta Asobal Ligara horren bizkor ailegatzea ezustekoa izan da. Epe luzerako helburua zan, baina konstantziari esker iaz lortu gendun. Hala ere, ez dot nere burua profesional moduan ikusten. Hobby bezela hartu naban eskubaloia, baina kategoriarik altuenera iritsi naizenez, ongi-etorrixa izan dadila.

Elkarren aurkako derbya jokatu berri duzue. Lagunak kalean eta etsaiak pistan?

U.: Pistatik kanpo ondo konpontzen gera, baina pista barruan ez dao lagunik eta eman bihar bada eman eitxen da. Pentsa, talde barruan ere egurra egoten da entrenamenduetan. Konpetentzia izugarria da, ez dao bromarik. Taldekidion arteko tratua zuzena da, baina pista barruan pike eta haserre handiak egoten dia. Jokalari bati postua kenduz gero, onera edo txarrera, baina postua berreskuratzen saiatuko da.

Nola hasi dute denboraldia zuen taldeek?

U.: Gu krisis totalian gaiz. Arraten aurkako partidua oso garrantzitsua zan. Talde igoberrixa izanik, irabazi biharrekua zan printzipioz... cta min egin zigun galtziak.

Bost partiduetan irudi txarra eman dogu eta Irun aldian nerbioso jarri dia. Helburu argixa dakagu aurten: Europan sartzea, baina zaila izango da. Hiru multzotan banatu leikez ligako taldiak: ukiezinak (Bartzelona, Ciudad Real, Ademar Leon eta Portland San Antonio), antzerako maila duten beste batzuk eta apalenak.

A.: Gure asmua lehen 7 partidutan 6 puntu ateratzea zan eta Bidasoan aurkako bi puntuak oso ondo etorri zaizkigu. Hala ere, galdu ditzugun pare bat partidutan zerbait gehixo ateratzeko esperantzia zakagun. Kategorixa mantentzia izango da gure helburua aurten.

"Pista barruan ez dago lagunik eta eman bihar bada eman eitxen da. Taldian ere konpetentzia izugarria da"

Unai Arrieta

Eta zuek pertsonalki?

A.: Nahiko izorrrauta. Aurre denboraldian oso ondo nabilen, baina bata bestian atzetik heldu jataz lesivak. Txorkatilia lehenengo eta bizkarra ondoren. Ez dot Asobal ligan debutatzeko aukerarik izan eta irrikixan nao.

U.: Nik ere aurre denboraldi nahiko politxa ein naban eta ligako lehen lau partidutan entrenatzailiak nerekin kontau arren, Arraten aurkako partiduan ez naban jokatu, baina iritsiko dia aukera berrixa.



UNAI ARRIETA
C.D. BIDASOA

- **Adina:** 23 urte
- **Postua**
Ezker hegalekoa
- **Altuera**
184 zentimetro
- **Pisua**
90 kilo

Nolakoa da jokalari profesional baten aste normal bat?


A.: Asteko lehen hiru egunetan 5 edo 6 entrenamendu eitxen ditzugu. Goizian alor fisikua landuz eta arratsaldian alor taktikua. Osteguneko eta ostiraleko entrenamenduak lasaixauak izaten dia, bidixuak ikusi...

U.: Aste barruko entrenamenduez gain, asteburuetan, partiduak. Kilometro eta ordu asko pasatzen ditzugu autobusian. Galdu ezkerro, tentsio handixa egoten da itzuleretan, batez ere, hanka sartzeren bat egin badogu. Muturtuta juten gera, bakoitza bere eserlekuan jarritxa eta mobitxu gabe.

lehen denboraldia da zuretzat (Ander) Asobal Ligan. Zer aldaketa igarri dituzu?

A.: Partidurik jokatzeo aukerarik izan ez arren, entrenamendutatik igarri dotenez,

arerioak pistan



ANDER GOIKOETXEA
J.D. ARRATE

- **Adina:** 23 urte
- Postua.**
Eskuin hegalekoa
- Altuera**
182 zentimetro
- Pisua**
79 kilo

eritmo bizixaua eta gogorra da. Partiduak irabazteko ondo jokatu, dakazun dana eman eta 60 minututan kontzentzaziva mantentzia ezinbestekoa da. Fisikoki ere igartzen da aldia, bi metroko oztopoak baititugu aurrez aurre. Atezainei jaurtiketen abiadura eta indarrak galdetzea besterik ez dago!

Zuk Unai, esperientzia gehiago duzu. Zer kontseilu eman ahal dizkiozu Anderri?

U.: Ez naiz inor kontsejuak emateko, baina kategorixa honetan jokatzeko maila badaka. Teknikoki oso ona da eta eukiko ditxu aukerak, pazientzia baldin badaka.

Zein dira Anderren/Unairen bertuteak jokalaritza moduan?

U.: Anderrek beti euki dau erraztasun

teknikua, berezkua du, eta kirol guztixetarako gainera. Teknika aldetik mila buelta ematen dizkia. Kategorixa honetan fisikoa ere landu bihar da baina.

A.: Unai daukan gauza oso ona fisikua izan da betidanik. Oso indartsua da. Defentsarako ondo joaten zaio eta azkarra ere bada. Honez gain dedikaziva eta konstantzia dira Unairen bertuterik onenak. Hasieran zituen gabetia teknikuak indarrakin berdintzen zitxuan, baina Asobal ligan ein ditxuan 4 urteotan asko hobetu dau teknikoki ere.

Zer da hegaleko postuak duen gauzarik zailena?

U.: Balo gitxi iristen zaizkigula partiduan eta iristen dianak sartu ein bihar dia, efektibitate exigitzen zaigu. Eskubaloian ondo jokatzen darian hegaletara baloiak iristen dia, baina talde gitxik jokatzen dabe ondo hegalekuekin. Hain zuzen sailkapeneko lehen postuetan daudenek erabiltzen dituzte gehien hegalek eta horrek zerbait esan nahi du.

A.: Erresistentzia handixa behar da. Defenditzeko zonarik errezena da, baina kontraerasotan ateratzen lehenak gera eta baitxa defenditzera bueltatzen ere.

Bizi al daiteke eskubaloitik?

U.: Bai, ni bizi naiz. Ondo pagauta dao, askok edozein langilek baino soldata hobia dake, baina aldiak daude. Hegalekuak adibidez, gitxien kobratzen dogu. 17-18 urtekin nere soldatatzua nakan eta bizi nintekeen, justu bazan ere. Galdarrera jun nintzanetik bizitzeko bihar doten dirua irabazten dot. Ezin da futbolakin konparau, baina urte batzutan ondo bizitzeko aukera ematen du.

A.: Posible da, baina zeintzuk? Momentuz bizi naiz, baina langile normal baten soldatiakin. Ekipo on batian bazaude bizi zintezke, baina bestela zaila da. Momentuz bi urte gehiorako kontratua dakat eta gero ikusiko da.



IBILBIDEA



Z

Q iva

Garlook "pasihoak" al zarele?

U.: Guztiz pasiboak.

A.: Bai, ni behintzat bai.

Ier liiru "plbetetan" einarritu nahiko zenuke zure biiitia?

U.: Zintzotasuna, apaltasuna eta errespetua.

A.: Familia, lagunak eta egonkortasuna.

Musikari edo musika talde bat?

U.: Gutxi landuta daukat gustu musikala.

A.: Heavyxa gustatzen jata. Metallica entzuten hasi nintzan, baina denetarik entzuten dot eta saxua ere jotzen dot.

Zeln da bietan juergistena?

U.: Ander.

A.: Unai.

Juergarako berri bat?

U.: Edozein umorerik eta gogorik bada.

A.: Bizkaiko kostako edozein herritako jaixak.

Bertute bat?

U.: Pertseberantzia.

A.: Lasaitasuna.

Akats bat?

U.: Pertseberantzia obsesio bihurtzen danian.

A.: Gauza asko bukaerarako lagatzen ditudala.



Aurkari moduan baino zupt,

ktliefi ottp ftp' bat?

ligako jokaho s a?

Atezain gaindiezlnena?



Nor bidaliko zenuke 2 minutuz kalera?

U.: Euskaldunon ulemena oztopatzen duen oro.

A.: Hemen bizi eta euskaldun sentitzen ez dana.

Eta nork merezi du thartel gorria?

U.: Espainiar nazionalismo zapaltzaileak.

A.: Gobernuak eta PPkoek.

Nork ligalzen du gehien?

u.: Anderrek.

A.: Unaik.

Nola "erasotzen" diezue neskei?

U.: Ez dut aukerarik izaten.

A.: Defendatzaile hobia naiz ni.

nefentsarik onena erasoia omen da, ados?

U.: Kontraerasoa.

A.: Ez, batez ere lotsagatik.

Ela mutil hatek maite zaibutela esanez gero, nola "defendituko" zinateke?

U.: Gauzak naturaltasunez argitzen saiatuko nintzake; saiatu gutxienez.

A.: Gauzak argi laga eta kitto!

lerk ematen dizu letsa?

U.: Neronek neroni jarritako helburuak bete ez izanak.

A.: Pertsona ezezagunekin hitz egiteak, lehen kontaktuak.

Esaidante ablageletako sekretu bat.

U.: Publikoarekiko gordetzen ditugun itxura eta konposturak desagertzen dira aldagelan. Biluzik geratzen gara.

A.: Ambiente oso ona.

5 segundu falta dira parlidua amaileko. Baloia pasatu ala golera jaurti?

U.: Golera jaurtitzeko gai izatia gustatuko litzaidake.

A.: Berdinduta baguaz bota eta hogeigatik irabazten badegu pasau.

nola ALDATU diren gauzak!



1969 urteko argazki hau Elgoibarko Udal Liburutegian laga digute, eta Merkatu Plaza zaharraren atzeko aldea ikusten dugu bertan. Honen alboan, urte desberdinetan uholde ugari jasandako zubi zaharra ere ageri zaigu argazkiaren eskumako aldean. Merkatu Plaza azpian astoentzako korta zegoen, eta baserritarrek bertan lagatzen zituzten astoak errekaduak egiten zituzten bitartean. Garai hartan, Merkatu Plaza dantzalekua ere izaten zen noizean behin, izan ere, euria egiten zuenean herriko bandak bertan eskaintzen zuen dantzaldia, eta jende ugari biltzen zen.

Honetaz gain, herriko beste eraikuntza ezagun batzuk ere agertzen dira argazkian. Besteak beste, Kultur Etxea, Barrutia etxea, elizako kanpai dorrea, eta "Forjas de Elgoibar" lantegia ageri zaizkigu. Azkenik, garai hartan Deba ibaiak oso ur gutxi zeukala aipatu dezakegu.


Z003ko argazki honetan, ingurune hau aldatuta ageri zaigu. Gaur egungo Merkatu Plazak fatxada zeharo ezberdina dauka. Gainera, solafuru gehiago ditu, eta garai hartan baino jende gehiago ibiltzen da bertan. Garai hartako zubi zaharrak toki berean jarraitzen du oraindik, baina zubi berria eraiki diote alboan, eta badirudi laster bota egingo dutela.

Honetaz gain, sumatzen dira beste aldaketa batzuk ere bai: Kultur Etxea eraberrituta ageri da, forja zaharra dagoeneko ez da existitzen, eta argazkiaren atzeko aldean, garai hartan oraindik egin gabe zegoen San Roke auzoa ikusten da. Etxebizitza ugari eraiki dituzte, denda eta taberna berriak ireki dituzte, eta jende asko bizi da bertan. Bukatzeko, Deba ibaian egiten ari diren obrak ikus daitezke. Garbiketa lanetan dabilta eta aurreko argazkian baino ur emari handiagoa daramala dirudi.

Juanito Gorostiza



IL URTEURRENA
2001eko urriaren 8an, 90 urte zituela hil zen
MARIA AZKARRETA ETXEBERRIAren oroimenez,
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Eusko tiouriariliaren lurraldearen Arloko Planak Elgoibarrerako bariantea aurreikusten du

Olasotik Deba ibaia eta San Roke zeharkatuz Arriagaraino iritsiko litzateke

Debabarreneko Lurraldearen Arloko Plana 1997an jarri zen martxan. Eskualdeko Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta gizarteko beste hainbat sektorek hartu dute parte plan honetan, eta azkenik, aurtan onartu egin dute.

Lurraldearen Arloko Planak gai desberdinak biltzen ditu: Ondarearen berreskurapena, etxebizitzaren arazoa, turismoa, poligono industrialen garapena, eta bariantearen beharra. Elgoibarko N-634 errepidean sortzen diren trafiko arazoak kontuan izanik, bariantearen beharra aurreikusi da.

Aurrekontua

Proiektu honek 5.050 milioi euroko aurrekontua dauka. Proiektua gauzatzen bada, tunel eta zubien bidez gainditu beharko dira orografiak sortuko dituen arazoak. Honela, Eibartik Debara doan bidaiariak, Olasoko industrigunea baino apur bat lehenago hartuko luke bariantea. Zubi baten gainetik Deba ibaia zeharkatu



Autopistaz gain, herria zeharkatuko duen bariantea izan dezake Elgoibarrek.

eta autopista gainditu ostean, San Roke auzoko punturik gorenera iritsiko litzateke. Hemendik Mintxetarako irteera bat hartuko luke, San Lorentzo aldera joateko. **Ondoren, Albitxuriko** industrigune azpitik tunela pasatuz errepideraino iritsiko litzateke. Bariantea, ordea, Arriaga auzoraino luzatuko da, eta hemen Azkarateko bidearekin lotura izango du.

Obrak 30.350.000 euroko kostua izango du, eta ikerketa baten arabera, 2017. urterako amaitzea aurreikusten da.

Udaletxetik jakinarazi dutenez, oraindik ez da ezer egin honen inguruan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dio proiektu honi lehentasunik emango. Proiektua gauzatzeko, Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean ekin beharko diote lanari.

Berba Laguna egitasmoa martxan jarriko da berriro

Pasa den ikasturteetako arrakasta ikusirik, aurtengoan ere, Berba Laguna egitasmoa martxan ipintzera doa Elgoibarko Izarra Udalararen eta euskaltegien laguntzarekin. Iazko ikasturtean, 40 lagun inguru ibili ginen, 28 euskaldun berri eta 11 euskaldun zahar.

Astean behin, euskaldun zaharrak eta berriak elkartu eta, ordubetez, euskaraz berba egiteko elkartzen gara lauzpabost laguneko taldeetan.

Zuk ere (euskaldun zahar zein berri), tertulietan parte hartu nahi baduzu, deitu lehenbailehen Elgoibarko Izarrara (943 741626 telefonora Amaia) edo bi euskaltegiatiko batera (Udal Euskaltegia: 943 742731. AEK euskaltegia: 943 741332). Izena emateko azken eguna urriaren 31 izango da. Beraz, oraindik ere izena emateko aukera daukazue, bai euskaldun berriok eta baita euskaldun zaharrok ere.

Deba ibaiko obren ondorioz Madalako kolunpioak kendu dituzte



Deba ibaiaren garbiketarako degi ten ari diren hodi biltzailea dela-eta, Madalako kolunpioak kendu dituzte aldi baterako. Kolunpioen azpitik bideratuko dute herriko ura Deba ibairaino, eta horretarako beharrezkoa da lurra altxatzea. Helburua, hodi biltzaileraren doan ura presio gutxiagorekin iristea da, Joan zen asteartean, urriaren 14an hasi ziren parkeko obrak, eta bukatu bezain pronto, kolunpioak eta jarlekuak berriz beren lekuan jarriko dituztela adierazi digute Udaletik.

Joseina Etxeberriak Madalako parkea bete zuen Disko Festarekin



Elgoibarko Udal Euskara Batzordeak antolatuta, Disko Festa izan zen joan zen larunbatean, hilak 11, Madalako parkean. Joseina Etxeberria Euskadi Gaztea irratiko esatariak zuzendutako emanaldia izan zen, eta gainontzeko herrietan bezala, Elgoibarren ere, sekulako arrakasta izan zuen Disko Festak. Madalako Parkea jendez gainezka zegoen. Bi ordu pasako emanaldia izan zen, eta musikako azken

arrakastak abestu eta dantzatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Eskenatokian Joseina izan zen jaun eta jabe, eta bi neska gazteren laguntzaz, Madalako parkea dantzan jarri zuen. Deditatoriak, animoak eta salto ugari eskaini zizkien Joseinak bere jarraitzaileei. **Jendea oso gustura geratu zen emanaldiarekin, eta txalo artean agurtu zuten Joseina.**

IMHko Txandakako Enpresa Ingeniaritzako ikasturte berria inauguratu da



Z003-2004 ikasturte akademikoa inauguratu zen joan zen urriaren 13an. Txandakako Enpresa Ingeniaritzako 8. promozioa izango da aurtengoa, eta dagoeneko hasi dituzte eskolak lehen eta bigarren kurtsoko ikasleek. Hirugarren mailakoak atzerrian daude praktketan. Bigarren kurtsoko ikasleek zuzenean hasi

dute ikasturtea; lehenengokoek ordea, jarduera ezberdinak egingo dituzte "hasierako aste" honetan, beraien artean giro ona sortu, elkar ezagutu eta talde dinamika sortzeko helburuarekin.

Ekitaldian Miguel Angel Mujikak hartu zuen parte. Joan zen ekainetik Elgoibarko alkate ordea da bera, baina enpresa munduan ibilbide luzea egindako gizona da, izan ere, 37 urtetan egin baitu lan Danobaten.

Ikasketak hasi berri dituztenek bigarren kurtsoko ikaskideen aholku eta iradokizunak entzun ahal izan zituzten inaugurazio ekitaldian, besteak beste, prestakuntzari nola ekin eta lehenengo kurtsosan zehar antolatu beharko duten bidaia proiektuari buruz hitz egin zuten.

Elgoibarko Odol emaileen Elkarteko oharra

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi digunez, Gabonetako Loteria sorta bat galdu zaie. Beraz, Odol Emaileen 2.477 zenbakitik 2.500 zenbakira arteko loteria taloia aurkitu duenak, entregatu dezala mesedez Elkarteak Pedro Migel Urruzuno kalean daukan egoitzan, edo Elkarteko kideren bati eman diezaiola.

Trinity College titulua Elgoibar Ikastolan

2002-2003 ikasturtean Elgoibar Ikastolan burutu ziren Trinity Collegeko ahozko froga gainditu zuten D.B.H. 4ko ikasleek tituluak jaso ditzakete, Ikastolan bertan, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara.



Maite Uriarte izango da BARREneko gehigarrien arduradun berria

Maite Uriartek beteko du Uxue Alberdik lagatako hutsunea. Barrenek lau gehigarri berezi kaleratzen ditu hilean, eta urritik aurrera bera izango da gehigarri hauen arduraduna. Maite Uriarte Enpresaritza ikasketak egiten ari da Donostian, baina betidanik gustatu zaio idaztea. Urruzuno Literatura Taldeko kidea da, eta aurrerantzean Txikibarren, elkarriketa sakona, gazte gehigarria eta Kilibarren gehigarrien egilea izango da.

Inkesta baten arabera, Estatuko biztanleen %70ak osasun ona edo oso ona duela uste du

GUSTURA AL ZAUDE DAUKAZUN OSASUNAREKIN?



ANE MARTINEZ
24 urte, ostalaria

Ez, gehiegi erretzen dut. Gimnasia joaten naiz, baina muskulazioa egitera bakarrik. Medikarengana gaixorik nagoenean joaten naiz. Penizilinari alergia diot, eta medikamentuekin kontuz ibiltzen naiz.

JESUS MARI CARO
35 urte, forjako langilea

Hain justu, urtebete daramat bajaran. Kotxe istripua izan nuen, eta klabikula puskatu nuen. Bestela, osasunez ondo nago. Medikarengana oso gaizki sentitzen naizenean bakarrik joaten naiz.



AINHOA ALONSO
18 urte, ikaslea

Batzutan bai, eta beste batzutan ez, baina orokorrian ondo sentitzen naiz. Dieta sano bat jarraitzen dut, eta gaizki sentitzen naizenean medikarengana joaten naiz.

SANTOS SANCHEZ
80 urte, jubilatua

Bai, oso ondo nago. Gripa daukadanean medikarengana joan, eta apur bat zaintzen naiz. Ez dut gehiegikeriarik egiten, sano jan, grasak ebitatu, gutxi edan, eta noizean behin purotxo bat erretzen dut.



ANDRES HIERRO
54 urte, biltegiko langilea

Bai, momentuz oso ondo sentitzen naiz, eta oportetan hobeto! Lanean kirol ugari egiten dut, eta denbora dudanean pasiatzera joaten naiz Bizikletan ibiltzen naiz, baina hemen beldurra ematen dit.

MARISA RODRIGEZ
61 urte, etxekoandrea

Bai. Osasuna zaintzeko gimnasia egiten dut, eta janariarekin kontuz ibiltzen naiz, gauetan batez ere. Gaizki nagoenean medikarengana joaten naiz, baina gauza arina bada, etxean sendatzen saiatzen naiz.



Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60

tiN COROON
'er VILARCHN

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

GRUPO

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 5711

Txiki inkesl-a

Zer da harrokeria?

11 urte lifigo Lopez

Pertsona batek bera munduko onena dela pentsatzen duenean.



9 urte Jon Ander Garcia

Txuloarena egitea, tonto ipini, "Pocholo" jartzen den moduan.



9 urte Joanes Etxabe

Txulitoa izatea da, eta askotan agintzen duena. Ez da lagun ona izaten.



9 urte Silvia Parras

Txulitoa izatea. Ezagutzen ditut txulito batzuk nere inguruan, eta oso ondo konpontzen naiz beraiekin. Ni ez naiz harroa.



Zer egingo zenuke munduko azken pertsona bazina?

Izaro Urtubia 11 urte

Nahiko triste egongo nintzateke. Nire alboan beti pertsonaren bat egotea nahiko nuke.



Ion Arrese 11 urte

Denda guztietako janari guztia hartuko nuke, almagaz batean utzi eta jendea berriro ekarriko nuke bizitzera.



Rebeca Aizpuri 11 urte

Telefono listinetan azkena ipiniko nintzateke.



Iker Ecenarro 9 urte

Jolastu, bidaiatu, nahi dudana arropa jantzi eta nahi dudana jango nuke. Port Aventura eta zoo batera joango nintzateke.



Paristik natorren *artista bat naiz ni...*

Amaia Belza • L.H. 5. maila - Elgoibar Ikastola



Bazen behin mufil baf Marcos i,zenekoa. Parizen blZL zen. Be, re
 oso fxi,roa zen efa horre9afi,k egl,fen zuen lan.
 Marcosek 9usfuko zuen musika. Insfrumenb paa baf zi,fuen
 berak Bere amefsa musialari, ospesua izafea, zen.
 Egun bafea,n ospesua, a zda arnesfu zuen, efa asko
 lusfatu ufzaa,on. Hurren90 e9unean mesfufakoa penfsafu efa 9ero, befefzea nahi, izan zuen. ordu,an musika
 fresna 9uzfukt harfu efa 9urasoei, esan ondoren Herrira a,biaftt zen. efa Ponosfi,a,ra,
 zen. Bere musika fresnak jofzen hasi, efa jendeari, asko 9usfatzen zdzaLonez, botafzen 19a—s'b
 zdzatakion. Azkenean, hai,nbesfe arureln aberasfu e9i,n zen. Konfzerfuak emafen basL zen. Bere cunefsa befe
 zen, ospesua, a e9in zen. Euskal Herrt, osofik zen musika jofzen. Asperfu zenean, frena harfu efa Parisa
 buelfali zen. Fatnik oso pozik i pi nL zen Marcos lusfean. E9un bafzufara mundu osoan zen ospesua.
 Pari,3en kontzerfu pi,la baf etnan zifuen. Handik aurrera Marcos poz pozik 6LU izan zen, nutzika, jo efa jo.

BSIPTS54- lehiaketa (1 lehiaketa)

lehiaketa

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzunak BARREnera ekarri edo
 posta elektronikoz bidali:
barren@topagunea.com



Aurreko txikibarreneko irabazlea: **Nerea Badiola**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA Gaztelupeko Hotsak

disketeak eskainitako CDa.

(MIKEL URDANGARIN "Heldu artean")



HisTSAK

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 17 Ibañez
- 18 Bidasolo
- 19 Bidasolo
- 20 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 21 Fernandez
- 22 Yudego
- 23 Zabaleta
- 24 Etxeberria
(Errosario kalean)

GAUEZ

- Ibañez
- Bidasolo
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta
- Eixeberria

FARMAZIAK

- ESCALA, Reka Ide, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

19 igandea Fotero

OSASUNA

- Anbulatorioa 943 03 26 10
- Planning-a 943 74 29 50
- Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
- D YA (anbulantzia) 943 46 46 22
- G u rutze Gorria 943 74 38 64
- Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
- Odol Emaileak 943 74 39 36

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak 943 74 04 42
- PESA (Eibar) 902 10 12 10
- Taxi geltokia 943 74 08 98

UDALA

- Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
- Udal Knol Patronatua 943 74 44 15
- Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
- Mendaroko Udala 943 75 61 00
- Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
- Udaletxea 943 74 10 50
- Udaltzaingoa 943 74 13 94

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
- Kiroldegia 943 74 44 15
- Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
- Liburutegia 943 74 35 25
- Musika Eskola 943 74 21 45
- NI ntseta 943 74 43 15
- Parrokia 943 74 08 42
- Postetxea 943 74 15 47
- Gaztetxea 943 74 35 72
- Gazte Informama 943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

- San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
- Zaharren Biltokia 943 74 05 26
- Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

- Haur Eskola 943 74 21 41
- HII (EPA) 943 74 08 80
- Herri Eskola 943 74 08 79
- I.M.H 943 74 41 32
- Instrutua

- Arreiturre 943 74 80 19
- Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
- Ikastola 943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 943 74 41 12
- El Diario Vasco 943 74 40 73
- El Correo Español 943 74 10 82
- Zazpiki irratia 943 74 34 74
- Egu nkaria 943 30 02 28
- Gara 943 31 69 99

Eusko

DONOSTIA-BILBO

Egunero
Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

Eusko

BILBO-DONOSTIA

Egunero
Bilbo 06.00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

AUTOBI[SAK]

ELGOIBAR


← SIGMA → → ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00 8:10
9:25 9:35
11:10 11:40
11:20 11:50
12:10 12:40
12:20 12:30
13:10 13:20
13:20 13:30
18:20 18:30
19:10 19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10 8:20
9:55 10:05
11:10 11:20
11:40 11:50
12:10 12:20
12:40 12:50
13:10 13:20
18:10 18:20
19:00 19:10



ANJEL ALKAIN

"KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL" antzezlaneko aktorea

"65 emanaldi egin ditugu eta antzoki guztiak bete egin dira"

Gorringo Antzerki Taldeak "Kutsidazu bidea, Ixabel" obra taularatuko du gaur, hilak 17, Herriko Antzokian. Antzerki saio honek orain arteko emanaldietan izan duen arrakasta ikusita, bi saio eskainiko dituzte, ilunizeko 20:30etan bata, eta gaueko 22:15etan bestea. Anizezleetako bat Anjel Alkain, Sorginen Laratza programako aktore ezaguna dugu. Gaurkoan gure artera ekarri dugu, eta emanaldiaren nondik norakoak kontalzeaz gain, bere burua apur bat gehiago ezaguizeko aukera izan dugu.

• Nola sortu zen "kutsidazu bidea, Ixabel" antzezteko ideia?

7 urtetan aritu gara umeentzako lanak egiten, eta aurretik Gorringo Taldea sortu dugu helduentzako lanak egiteko asmoarekin. Berehala konturatu ginen, hizkuntza eta geografia aldetik hurbilekoa daukagulako "Kutsidazu bidea, Ixabel" egin behar genuela.

• Zein dira arrakastaren arrazoiak?

Obra oso konpletua da, eta kontatzeko moduan ere, asmatu egin dugu. Euskaraz egindakoa da, eta hizkuntza asko zaindu dugu. Gure hizkuntzan hitz egiten dugu, eta horrek sinesgarria egiten du istorioa. Gainera jendeak euskaraz barre egiteko beharra dauka. Kulturgileek esaten digutenez, duela 10 urte "Ama begira ezazu" antzezlanarekin gertatu zen fenomenoa errepikatzen ari da.

• Zein da zuk antzezten duzun papera?

Hiru pertsonaia egiten ditut: taxistarena, aitarena eta euskaltegiko ikasle baten papera. Protagonista nagusiak kenduta, gainontzekoek bi edo hiru paper antzezten ditugu.

• Ba al dauka Anjel Alkainekin zerikusirik?

Istoria baserri ingurukoa da, eta nik ezagutzen dut mundu hori. Taxistaren paperarekin agian badaukat zerikusirik, biok gara pixka bat adar joleak.

• Zenbat emanaldi eskaini dituzue dagoeneko?

Martxoaren 15ean estreinatu genuen obra Billabonan, eta ordutik 65 emanaldi eskaini ditugu. Arrakasta izugarria izan dugu, eta euskara hutsean eginiko lana dela kontuan izanik, oso pozik gaude. Momentuz 100 emanaldi kontratatuta ditugu.

• Aktore izateko bokazioa behar da, edo ikasi egin al daiteke?

15 urte daramatzat interpretazioaren munduan. Ikasi egin daiteke, gauza guztiak bezala, baina berezko zerbait beharrezkoa da. Nire kasuan, argi daukat umorea egin nahi dudala, eta berezko "salero" pixka bat beharrezkoa da.

• Telebistan egiten dituzun pertsonaiak nondik ateratzen dituzu?

Gidoilari talde batek sortzen ditu, baina nik ere parte hartzen dut prozesu horretan. Gertuko pertsonaiak sortu ditugu, eta asmatu dugula uste dut.

• Euskara ikasten ari diren ikasleak identifikatzen al dira antzezlanarekin?

Bai, eta antzerkia amaitutakoan jende asko etortzen zaigu barnetegietan bizi izan dituzten anekdotak kontatzera. Bestalde, baserrietako jendea ere joaten da emanaldietara, eta beraien burua ikusten dute bertan.

• Nola animatuko zenituzke elgoibartarrak antzerkira joateko?

Oso ederki pasatuko dutela ziurtatzen diet, barre egingo dute, eta Kike Amunarrizek esaten duen bezala, "umorea oso serioa da, eta galdu beharreko azkena".

• Nola agurtuko luke elkarrizketa hau Jose Antonio Aranak?

36ean ez ziguten holako elkarrizketaik eiten. Ordun Patxi zaharra genuen, ta dana debekauta zeon, hala ere, antzeko batzuk ai dia gu izorratzen. Bueno ba, adios ta ondo pasa.

"Jendeak euskaraz barre egiteko beharra dauka"

Jose Roncoren argazki erakusketa izango da Kultur Etxean urriaren 24tik azaroaren 8ra

Roncoren lana Ongarrik argitaratutako "Eibar tailer hiria" liburuan jasota dago

Ongani K.E. eta Elgoibarko Udalaren Kultura Sailak antolatuta, Jose Roncoren argazki erakusketa izango da Kultur Etxean datorren urriaren 24tik azaroaren 8ra arte.

Debabarreneko bailarak badauka bere-berea den ezaugarri bat: tailerrak eta etxebizitzak hirigunean daude integratuta, biak espazio berean, familia bizimoduaren eta makinaren zarata eta usainen arteko elkarbizitzan. Jose Ronco Ragama herrian (Salamanca) jaioa den arren, urte asko daramatza Eibarren bizitzen, eta bere begiekin ikusi ditu hirigintzaren eraldaketak. Honela, industriako eraikin esanguratsuenetarikoa jaso ditu bere begiradak, eta aldi berean tailerrak eta etxebizitzak dituzten eremuak eta kaleen elkarguneak ere jaso ditu, naturari lapurtutako espazioa ahaztu gabe.

Roncoren argazkiek XX. mendearen bigarren erdialdean bailarek bizi izan duten industri prozesuak hirigintzan izan zuen eragina islatzen du. Era berean, bailararen ezaugarri izan den industri irudi hori berreskuratzen eta eguneratzen lagunduko



Industriako eraikin esanguratsuenak jaso ditu Jose Roncoren begiradak

diguten ekintzak proposatuko dizkigu erakusketan.

"Eibar tailer hiria"

Jose Roncoren lana Ongarrik argitaratutako liburu batean jaso da. "Eibar tailer hiria" dauka izenburua liburu horrek, eta Kataluniako Primavera Fotografica elkarteak antolaturiko VIII. Liburu eta Argazki Katalogoen Lehiaketan ohorezko

aipamena jaso zuen. Liburu lehiaketa honetara nazioarteko herrialde garrantzitsuenetako 239 liburu aurkeztu ziren, besteak beste, Alemania, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Erresuma Batua...

Roncoren erakusketa urriaren 24an, ostiralean, inauguratuko da arratsaldeko 20:00etan, eta bisita orduak astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 19:00etatik iluntzeko 21:00etara izango dira.

"Inaxitoren ametsak" antzezlana izango da Herriko Antzokian, datorren igandean, hilaren 19an

Trikuharri Antzerki Taldeak "Inaxitoren ametsak" antzezlana eskainiko du datorren igandean, hilaren 19an, arratsaldeko 16:30ean Herriko Antzokian. Gorka Tolosa, Xabier Sukia eta Ibai Esoain aktoreek 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat eginiko emanaldia aurkeztuko dute.

Hurrengo egunean geografiako azterketa duela eta, Inaxito kezkatuta lokartuko da. Ametsetan, igel bat gidari duela, herrialdez herrialde, munduan zehar bueltatxo bat emango du, eta herrialde bakoitzean pertsonaia bereziren batekin egingo du topo, abentura umoretsuak biziz.



Hizkuntzarekin gozatzea izango da ikuskizunaren helburuetako bat. Horrela ipuin eta txisteeekin batera, bertsoa ere tartekatuko da zenbait elkarrizketatan. Datorren igandean, beraz, Inaxito eta bere lagun berriekin, munduaren geografiari errepasso arin eta alai bat emateko aukera izango dute gaztetxoek.

Ongarri Bne Klubeko emanaldiak urriaren 24an hasiko dira

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari eskainitako aste bereziaren ostean, urriaren 24an, egunean, hasiko dira Ongarri Zine Klubeko denboraldi berriko filmeen emanaldiak. Beti bezala ostegunetan izango dira saioak 22:15ean. Lehen filmea Neil Jordan zinegilearen "El buen ladron" izango da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko 50. ekitaldiari hasiera emateko aukera izan zuen thriller bikain honek. Urriaren 30ean, berriz, Otra Iosseliani zuzendariaren "Lundi Matin" filmea izango da ikusgai. Berlingo Zinemaldian zuzendari onenari ematen zaion Zilarrezko Hartza eskuratu zuen eta ekitaldi bereko Fipresci saria ere lortu zuen. Azaroaren 6an, azkenik, Robert Gu&liguian zuzendariaren "Mariejo y sus dos amantes" filmea botako dute.

hilgo Larizek laugarren aldiz irabazi du San Pedroko igoera

48 txirrindularik hartu zuten parte, hauetatik 33 herritarrak

Uma-Cegasa afizionatu mailako Hilgo Lariz txirrindulariak ezin izan zuten iaz ezarritako errekorra hautsi, baina San Pedroko Txirrindulari Igoera laugarren aldiz irabaztea lortu zuen Pilarika Egunean. Larizek 13'35" denbora egin zuen helmugan, iaz baino 14 segundu gehiago. Ez da marka makala, egun batzuk lehenago arazo fisikoak zirela-eta, parte hartu edo ez zalantzan egon zela kontutan hartuz. Bere neurrira egindako froga dela egiaztatu zuen Larizek lasterketa egunean eta 8 segunduko alde atera zion Arkaitz Mujika elgoibartarrari. Azken bi urteetan Loroño Memoriala irabazi duen elgoibartarrentzat parte hartzen zuen lehen aldia zen eta ez zen batere gaizki moldatu. Bera izan zen Herri Gain pasa eta berehala eraso jo zuena, baina ez zuen Lariz atzean lagatzerik lortu eta azken metrotan Iñigoren indarra nagusitu zen.

48 lagunek hartu zuten parte Elgoibarko Lagun Taldeak antolatzen duen proban, tartean 33 elgoibartarrek. Kadete mailan Beñat Urain mendararra nagusitu zen, lehen gaztea Iban Gonzalez izan zen eta adinen araberako sailkapenari dagokionez, Jose Mari Fernandez "Suso" izan zen onena 36 eta 45 urte bitartekoen artean. 46-55 adin tartean Antonio Lendinez izan zen azkarrena eta azkenik Jose Mari Maiztegi nagusitu zen 55 urtetik gorakoen artean.



XI. SAN PEDROKO TXIRRINDULARI IGOERA

ELGOIBATARREN ETA MENDARROARREN SAILKAPENA

1- Iñigo Lariz 13:35	12-Beñat Urain 17:49	23-Iñald Gorosabel 21:49
2-Arkaitz Mujika 3:43	13-Jorge Cid 18:02	24-Angel Alvarez 22:01
3-Jose Mari Fernandez 14:17	14-Jorge Gonzalez 18:12	25-Alfredo Irusta 22:35
4-Iban Gonzalez 14:55	15-Enrike Astigarraga 19:10	26-Jose Angel Calvo 23:30
5-Iftigo Ortuoste 15:32	16-Antonio Lendinez 19:19	27-Eneko Ramos 25:29
6-Jose Juan barrenetxea 15:50	17-Martin Dominguez 19:39	28-Angel Arregi 25:48
7-Javier Torquemada 16:03	18-Ricardo Huidobro 19:53	29-Axier Arregi 25:48
8-Carlos Lher 16:21	19-Jose Antonio Gurrutxaga 20:13	30-Alfonso Leo 26:19
9-Ernesto Rodriguez 17:26	20- Aitor Oñederra 20:23	31-Manuel Polo 26:37
10-Oler Oñederra 17:42	21- Eduardo Arrona 20:38	32-Jokin Salegi 32:36
11-Diego Luque 17:44	22-Martin Bernedo 21:36	33-Antonio Rodriguez 32:47

Futbola, 2003/2004 denboraldia. Taldeen aurkezpena



PEDRUSKO (1. erregionala)

Tente, ezkerretik eskumara: Toñin, Koldo Lartain, Garikoitz Muñoz, Alain Medina, Asier Diez, Iker Izagirre, Txomin Zubizarreta, Carlos Conde, Antonio Gomez, Gorka Merino eta Nico Jimenez.

Makurtuta, ezkerretik hasita:Santi Carraseosa, Ander Barrenetxea, Gorka Dominguez, Imanol Calleja, Manolo Ramos, Jon Ibañez, Arkaitz Leiaristi eta Anton Izagirre.

Argazkian falta dira: Toni Moreno, Angel Romero, Xabier Elustondo, Imanol Carcedo, David Conde eta Alberto Diaz.

Futbola, 2003/2004 denboraldia. Taldeen aurkezpena

NESKAK



Tente, ezkerretik eskumara: Alberto Hernandez (entrenatzailea), Karen Bastarrika, Amaia Zabaleta, Enara Gorostiza, Maialen Mora, Miriam Garcia, Irene Elorza eta Roberto Garcia (entrenatzailea). **Makurtuta:** Marta Diez, Amaia Epelde, Laura Mugika, Mainer Rejas, Mainer Oñederra eta Lorena Babarro. **Argazkian falta dira:** Maite Linares, Ainhoa Alberdi, Ane Izeta, Nagorc Lucchcs, Mainer Diez, Dorleta Arambarri, Lucia Dieguez, Saioa de Pedro, Eneritz Arrillaga eta Alaitz Merino.

NESKAK F-8



Tente, ezkerretik eskumara: Alberto Hernandez (entrenatzailea), Laura Odriozola, Ainhoa Zapata, Mireia Iriondo, Loitzunc Perez, Nerea Arakistain, Itsasio Egaña, Ainhoa Saavedra, Maitane huidobro, Mireia de Castro eta Roberto Garcia (entrenatzailea). **Makurtuta:** Amaia Vegas, Naia Abad, Miren Ramos, Irune Martinez, Laura Vegas, Jone Loiola eta Ane Gala.

EMAITZAK

Futbola

Ordizia 0 - Haundi 0 (Pref.)
Elgoibar 3 - Gazteak 0 (1. erreg.)
Elgoibar 4 - Mondragon **1 (Jub.)**
Elgoibar **17** - Urola 0 (Kad.)
Elgoibar 5 - Lengokoak **2 (Inf.)**
Bergara 0 - Elgoibar **0 (Neskek F-8)**
Gasteiz 1 - Elgoibar **6 (Neskek)**

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak A 22 - Soraluze **12 (Kad.)**
Lagunak B **15** - Zumaia 22 (Nag.)
Lagunak A 22 - Aretxabaleta **16 (Nag.)**

Eskubaloia

San Adrian 22 - Cometel Elg. 29 (Kad. neska.)
Tecnomeca Elg. **12** - Askartza 23 (Kad. mut.)
San Adrian **30** - Pagoaga Elg. **8 (Jub. neska.)**
Pneumax Elg. **14** - Askartza **31 (Jub. mut.)**
CAF **23** - Sanlo Elg. **20 (Sen. mut.)**
Tecnifuelle Elg. **21** - Bergara 23 (Sen. mut.)

Areto Futbola

Kenci Elg. **6-** Lo + BMW **6 (Nazional B)**
Ayete **7** - Lanbroa 2 (**2. maila**)
Lojantzi 0 - Aloña Mendi **6 (Jub. Gip.)**

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Domekia, 19

11:30 Lanbroa - Alegi (**2. maila**)

12:45 Magefesa - Izarra Vitoria (**Jub. Naz.**)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 18

16:30 Haundi - Amaiak Bat

Domekia, 19

10:15 Elgoibar - Zarauz (**Neskek F-8**)

12:00 Elgoibar - Almen (**Neskek**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 18

17:30 Pagoaga Elg. - Askartza (**Jub. neska.**)

19:00 Cometel Elg. - Askartza (**Kad. neska.**)

Domekia, 19

10:00 Sanlo Elg. - ITE Hondarribi (**Sen. mut.**)

5.25^{11,4}

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49+1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA

tk

Juan Mugerza, 3 Tr 943 74 12 56 - (nnobila) 609 53 23 83



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Urola Erdiko enpresak mekanikoa behar du. Erref. 110093/1

Urola Erdiko enpresak administrazioa behar du. Erref. 110083/3

Donostialdeko enpresak mediku bisitatzaila behar du. Erref. 110086/3

Donostialdeko enpresak 3 monitorea behar ditu. Erref. 109904/1

Gasteizko enpresak kalitate arduraduna behar du. Erref. 110055/2

Durangoaldeko aldi baterako enpresak kontrolatzailea behar du. Erref. 109954/3

Durangoaldeko enpresak informatikaria behar du. Erref. 110330/1

Durangoaldeko enpresak tronpeta irakaslea behar du.

Erref. 110288/1

Durangoaldeko enpresak administrazioa behar du. Erref. 110172/2

Durangoaldeko enpresak kalitate kontrolerako teknikaria behar du. Erref. 110336/1

Hautagai moduan sartzeko eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (PeioJuaristil 943 74 80 19 edo IMH (Nora RamOn) 943 74 41 32 telefonora.

1-171t1U

ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. tr 943 75 24 31/600 89 06 41

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. a 660 91 94 23

• Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. s 686 10 85 52

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. a 660 78 00 73

• Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. v 943 74 36 38

• Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Egun solteak. v 943 74 22 01

• Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egin, umeak zaindu edo ostalaritzan lan egiteko prest. tr 615 71 34 40 (Mercedes)

• Mutila kamarero lanak egiteko prest. v 615 71 34 40 (Pedro)

• Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. s. 626 91 49 04

• Neska, umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Baita dendan lan egiteko. Tr 943 74 20 50/679 23 76 11 (Maria)

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. tr 665 20 18 24 (Ainhoa)

• Neska gaztea asteburuetan lan egiteko prest. v 943 74 07 99

• Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. [lr](http://www.sol.com) 609 409 606 (Sol)

• Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. a 660 69 53 03 (Martha)

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. tr 943 74 30 56

• Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. tr 943 74 37 60/678 43 76 33

ESKAITZA

• Igeltsero lanak egiteko mutil gaztea behar da. Esperientzia baldin badauka hobe. Tr 605 70 52 04

• Neskatxa bat autobusera eraman eta jasotzeko pertsona behar da. v 943 74 29 54

• Ostiral eta larunbatetan barran lan egiteko kamarero euskalduna behar da. v 943 74 31 17

• Egun solteetan 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. v 943 74 18 46 (20:00etatik aurrera)

• Estetizista behar da Elgoibarren. v 943 74 43 03

• Kamareroa behar da. v 943 74 42 65

Etxebizitzak

• Pisua salgai Urasandin. NV20-4.F. tr 943 74 17 01

• Etxebizitza alokatzen da Santa Klaran. Amueblatuta, dena kanpora begira. r 617 68 93 48

• Neska pisua edo logela hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. v 605 74 13 70

• Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, 3 logela, komuna eta bi ganbara. v 665 70 30 24

• Etxebizitza salgai herri erdian. 3 logela, altzariekin, berritua. Bizitzera sartzeko moduan. s 661 42 60 77

• Pisua erosiko nuke donostian. Ez zait inporta obra egiteko baldin badauka. v 699 13 40 81 (Ainhoa)

* Etxebizitza alokatzen da Santa Klaran. Amueblatuta, dena kanpora begira. tr 617 68 93 48

• Logela alokatzen da, sukalde erabilpena bane, San Roke auzoan. v 943 74 88 53

• Etxebizitza salgai Urasandin. 3 logela, sala, sukaldea, 2 komun. v 943 74 18 18

* Pisua alokatzen da Urasandin. v 661 79 04 52

• Pisua hartuko nuke alokairuan. tr 649100185

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar eta Durango artean. 11- 943 74 05 35

Garajeak

• Garajea salgai Urasandin. (Anaiak edifizioan). tr 620 43 14 80 (18:00etatik aurrera deitu)

Bestelakoak

• Urriaren 4an, larunbatean, Malape tabernan norbaitek trajearen txaketa amerikarra konfundituta eraman zuen. Beste txaketa amarikarra nik daukat. v 943 74 28 93

• Madalako etxe berrietan trasteroa alokatzen da. v 605 77 34 53 (20:30-22:30 bitartean deitu)

• DBHleko ikasleek eskola kirolerako entrenatzailea behar dute. v 619 12 74 74 (21: 00-22:00 bitartean deitu)

• Erlojua galdu nuen igerilekuan. Casio markakoa, beltza. tr 943 74 32 56

• Norbaitek katu nabar bat galdu badu IMHko sarrera eta inguruetan begira deza, hiru egun daramatza bertan bueltaka.

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

• Opel Corsa Sport salgai. 1.4, 16v. Llantak, lehio igogailu elektrikoak, airbag... Prezio onean. v 699 34 70 40

• Play Station 1 kontsola salgai. Txiparekin, mando bat, memory card eta 18 joku. v 626 02 71 93

• Errepiderako bizikleta salgai. 3 plato, aluminiozko kuadroa. Berria. Prezio interesgarria. v 652 72 76 31

• Citroen AX, 1500 diesel autoa salgai. 5 urte. r 649 61 31 34

• Seat Ibiza GT TDI autoa salgai. 110 zaldi. 55.000 km. 99koa. v 650 89 79 85

* Peugeot 205 diesel autoa salgai. 900 euro. Karneta atera berri duenarentzat aproposa. v 615 72 36 12/943 74 02 09

• Tresiloa eta bi butaka salgai. Egoera onean, berriak, otsailean erositakoak. Tr 943 74 06 85

*Kawasaki KLE 500 motorra salgai. Egoera onean. a 605 70 52 04 (Edu)

• Hyundai Accent 1325 autoa salgai. Hiru ate, irratia eta CDa, balazta argia duen spoilerarekin. 7 urte, 110.000 km. Egoera oso ona. 3.000 euro. v 943 74 44 46

• Fagor berogailua salgai. Termostatoarekin, 2000 w. 40 euro. tr 943 74 44 46

• Scooter Daelin NSII 125cc. salgai. 8.000 km. v 678 80 35 35 (Gerar)

• Apaindegia traspasatzen da Elgoibarren. Tr 943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)

Partikularrak

• DBHko klase partikularrak ematen dira. r 943 74 16 88

• Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona behar da. 1-2 pertsonentzako. DBH2 maila. tr 699 820 820

• LH4ko umeari klase partikularrak emateko pertsona arduratsua behar da. Astelehenetik ostegunera. v. 626 23 75 70

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. v 943 74 31 67 (Nekane)



Agurrak



◆ Zorionak Elena, gaur, urriak 17, 7 urte egin dituzulako. Gurasoen, Lauraren, amama Pilar eta aitxita Kruzen partez.



• Etxeko printzesari mila kilo zorion. Ondo pasa zure 6. urtebetetzean eta muxu bat Aitor, Iker, Dorleta, Borja eta etxeko guztien partez.



• Zorionak Poxpdin! 17a iritsi da, eta 7 urte egin dituzu. Besarkada handi bat eta bi mila muxu familiakoen eta bereziki, Ionon partez.



• Zorionak Mireia! Bihar 14 urtel Ez ligau hainbeste, eta lagaiguzu bestei, eh! Ondo pasau zure eguna. Zure lagun onen partez.




◆ Zorionak Mikel, hilaren 12an, 6 urte bete zenituelako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Julene, losu eta Leirenen partez.



• Zorionak Maria, hilaren 15ean, 3 urte bete zenituelako. Muxu eta ahizpa Sararen partez.



• Zorionak Naroo, urriaren 22an, 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta bereziki, Oierren partez.



• Zorionak Alain, hilaren 21 ean 4 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta bereziki, anaia Mikelen partez.



◆ Zorionak Josu, gaur, hilak 17, 8 urte bete dituzulako. Mikel eta zure familiako guztien partez.



• Zorionak Miriam Goyri, hilaren 11n, 12 urte bete zituelako. Muxu bat familiako guztien partez.



• Zorionak Jennifer, hilaren 15ean, 12 urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



◆ Zorionak gure printzesa, asteazkenean 8 tirakada fuerte, merezi dituzue eta. Etxeko partez.



◆ Zorionak Ainhizeri, hilaren 21ean, 3 urte beteko dituelako. Familiako guztien partez.



◆ Zorionak Nerea, urriaren 15ean, 8 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak Markeli, hilaren 15ean, 2 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki, anaia Ibairen partez.



◆ Zorionak amatxol Espero, dugu zure eguna ondo pasatuko zenuela. Aitaxo, Joana eta itxasoren partez.



◆ Zorionak Maitane, atzo, urriak 16, 5 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki, zure ahizpa Maialenen partez.



Zorionak Amaia soriginari, hilaren 20an, 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak Unai Eguren, bihar urteko bat egingo duelako. Patxo haundi-haundi bat eb(eko)en eta bereziki, anaia Oierren partez.



• Zorionak Nahari, hilaren 20an, 2 urte egingo dituelako. Familiako guztien partez.

BEKAK

Boluntarioak

Nazio Batuen Erakundeak prestatu duen beken programari esker, hautaturiko pertsonak UNESCO hegoaldeko herrialdeetan dituen egoitzetara bekadun moduan lan egitera joango dira hezkuntza, zientzia, kultura, komunikazioa, generoa eta gizarte-garapena sustatzen lan egitera. Bekak urtebeteko iraupena du, baina beste urtebetez luzatzeko aukera dago. Epea: urriak 30

Alpinismoa

Azpeitiko Udalak alpinismoari loturiko ekintzaren bat antolatzen duten mendizale, mendi-klub eta bestelako talde eta elkartei zuzendutako 2003ko Joxe Takolo beka antolatu du. 3.606 euroko dirulaguntza ekintzak antolatzeko. Epea: urriak 31

IKASTAROAK

Laneko arriskuak

Donostiako CEIMPROk Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko ikastaroa antolatu du urritik ekainera. Bi maila ezberdin izango dira: goi maila eta erdi maila. Urrutiko metodologia erabiliko da, presentziako tutoretzekin eta tutoreen etengabeko laguntzarekin. Epea: plazak bete arte

Hezkide Eskola

Donostiako Hezkide Eskola, astialdia, susperketa soziokulturala eta boluntaritzako eskola da. Urteen zehar hiru arlo hauekin zerikusia duten ikastaro ezberdinak antolatzen dituzte. Hala nola, haur eta gazteekin lan egiteko formakuntza, ezinduekin aritzeko formakuntza eta helduekin lan egiteko edota dinamizatzaile bezala aritzeko ikastaroak eskaintzen dituzte. www.hezkide.org

Mendiko orientazioa

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko orientazioko GPS-ari buruzko ikastaroa antolatu du urriaren 25 eta 26an Andoaingo Adarra mendian. Parte hartzeko derrigorrezkoa da federatuta egotea. Epea: urriak 22

LEMAKEIAK

Ipuinak

Bilboko Goizubi Kultur Elkarteak euskarazko gai libreko ipuin lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko adin mugarik ez dago eta aurkeztutako lanak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira. 1.000 euroko sari bakarra. Epea: urriak 31

Argazkiak

Eibarko Udalak XVI. Inaldecio Ojanguren Argazki Lehiaketa antolatu du, parte hartu nahi duten zaletu guztiei zuzenduta. Argazkiak gai librekoak izango dira eta parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, zuri-beltzeko 3 eta koloretako 3 aurkeztu ahal izango ditu. 11 sari ezberdin. 1.710 euro saritan. Epea: urriak 23

Artista Gazteak

INJUVEk artista gazteen lanekin arte-erakusketa egiteko lehiaketa jarri du abian. 30 urtez azpiko gazteek har dezakete parte, bakarka nahiz taldeka. Ez da modaliterik ezarri eta artelanak edozein euskarritan aurkez daitezke. INJUVEk erakusgai jarriko ditu aukeratutako artisten obrak, eta muntaia, garraio eta aseguru gastuak, katalogoaren argitalpeneko gastuak eta erakusketaren publizitateko gastuak ordainduko ditu. Epea: azaroak 15

LNYA

Zaintzako arduraduna

Basauriko Udalak kiroldagietako mantentze-lanetako eta zaintzako arduradun bat behar du. Derrigorrezkoa 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: urriak 25

17 BARIXAKUA

18:00 HITZALDIA

Gaia: Bizi testamendua
Hizlaria: Sara Ibarbia
Jubilatuen Biltokian

20:30 ANTZERKIA

"Kutsidazu bidea, Ixabel" (euskaraz)
Herriko Antzokian
Taldea: Goringo Antzerki Taldea

22:15 ANTZERKIA

"Kutsidazu bidea, Ixabel" (euskaraz)
Herriko Antzokian
Taldea: Goringo Antzerki Taldea

18 ZAPATUA

16:00 PIRATEN JAIALDIA

Haur Hezkuntzako haurrei zuzendutako tailerrak
Plaza Handian



19 DOMEKIA

16:30 ANTZERKIA

"Inaxitoren ametsak" (euskaraz)
Taldea: Trikuharri Taldea
Herriko Antzokian
(6-12 urtekoentzat)

21 MARTITZENA

10:00 BIATOR DONEAREN EGUNA

Pilar Ikastetxean

23 EGUENA

19:30 EINBIOU HERRI

PLATAFORMAREN BILERA

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Elgoibarko Einbiou Herri
Plataforma

24 BARIXAKUA

19:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

"Tailer Hiria"

Argazkilaria: Jose Ronco
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte
Azaroaren 8ra arte

22:00 ZINE FORUM-A

"El hijo de la novia"

Hizlaria: Eskarne Larrñaga
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

OSPAKIZUNAK

Biator Donearen Eguna

Urriaren 21ean, martitzenean, Biator Donearen Eguna ospatuko du Pilar Ikastetxeak. Goizeko 10:00etatik aurrera hainbat kirol eta jokotako finalak izango dira. 11:30ean futbol eta pilota txapelketetako finalak jokatuko dira eta 12.15ean sari banaketa ekitaldia hasiko da.

TAILERRAK

Piraten Jaialdia

Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak Piraten Jaialdia antolatu du. Hiru eta bost urte bitarteko Haur Hezkuntzako haurrei zuzendutako tailerrak dira eta zapatu honetan, urriaren 18an, egingo dira. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara egongo dira tailerrok Plaza Handian eta dohainik izango dira.



"El buen ladrón"

Zuzendaria: Neil Jordan.

Antzezleak: Nick Nolte, Tcheky Karyo, Said Taghmaoui.

"Bob le flambeur" (1955) Jean Pierre Melvillen klasikoaren berridazpen pertsonala da Neil Jordanek lan honekin egin duena. Bertan, gidoi lanetarako errealizatzaile frantsesak erabilitako osagai garrantzitsuenak hartuko ditu tramaren konposaketarako baina hurbilketa askoz beroagoa, xamurragoa eta ulerkorragoa eginez. Pertsonaiei dagokienez, hauek bizitzak ondo jipoitutakoak izanik ere, bizizale borrokatuak eta dagokien patu zitalaren menpe jausi nahi ez dutenatarikoak dira.

IKASTAROAK

Barreterapia

Barreterapia ikastaroa izango da Aubixa baserrian. Bertan barre egiteak gorputzarentzat eta osasunarentzat izan ditzakeen onurak azaltzeaz gain, praktikan jarriko dira. Besteak beste, gorputz osoko muskuluak abian jarri, energia negatiboak uxatu, estresa gutxitu eta depresioei eta arazoei aurre egiteko mesedegarria izan daiteke barre egitea. Urriaren 19an, domekan, izango da hurrengo saioa, baina azaroaren 16an eta abenduaren 14an ere izango da ikastaro hauetan parte hartzeko aukerarik. Ordutegia honakoa da: 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 19:30etara. Informazio gehiagorako edo izena emateko 943 74 17 15 telefonora deitu.

Dantza ikastaroa nagusientzako

Inazio Bereziartua Musika Eskolak nagusientzako dantza ikastaroak antolatu ditu Haritz Euskal Dantzari Taldearen laguntzarekin. Klaseak, astelehen eta ostegunetan 21:00etatik 22:00etara eta larunbatetan 10:30etik 12:00etara izango dira. Euskal dantzak orokorrean irakatsiko dira, baina fandangoa eta Arin-arina bereziki. Izena emateko deitu Musika Eskolara arratsalde: 943 74 21 45.

Zoriontasunaren pedagogia

Iaz moduan zoriontasunaren pedagogiaren inguruko ikastaroa eskainiko du Enrike Larrafiaga irakasleak aurten ere. Urriaren 22an, asteazkenean, hasiko dira klaseak Kultur Etxean eta 20 astez luzatuko dira. Ordutegia honakoa izango da: 19:30etik 21:00etara. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 677 42 55 60 telefonora deitu,

SEXUA

Sexu fantasiak jasotzeko kanpaina
Biluzik Sexologia Zerbitzuak Elgoibarko 16 eta 30 urte bitarteko gazteen sexu fantasiak ezagutu nahi ditu. Honetarako 5-7 lerrotan idatzi beharko dira sexu **fantasiak**. **Idatzi ostean, biluzikzerbitzua@yahoo.es helbide elektronikora bidali edota honako helbidera: Biluzik Zerbitzua. Kultur Etxea. Nafarroa Enparantza 4. 20870 Elgoibar. Ez dago izenik eman beharrik. Sexu fantasiak jasotzeko azken eguna azaroaren 10a izango da.**

IKASKETAK

Diploma banaketa IMHn

IMHko ingeniartzako ikasleek urriaren 24an, barixakuan, amaituko dute kurtsoa eta beraz, diplomak jasotzeko ordua iritsi zaie. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da diploma banaketa ekitaldia. Frantziako CESI-ko (Centre d'Etudes Superieures Industrielles) zuzendariak, IMHko zuzendariak eta ingeniartzako zuzendariak parte hartuko dute bertan, irakasle ikasle eta gurasoekin batera.

zine

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"28 dias despues"

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 19:30-22:15
19, domekia: 19:30-22:15
20, astelehena: 22:15

"El buen ladrón" (Z.K.)

23, eguena: 22.15

"En un lugar de Africa"

24, barixakua: 22:15

"Underworld"

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:30
19, domekia: 17:00-19:30-22:30
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

"El juego de Ripley"

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:15
19, domekia: 17:00-19:30-22:15
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30
22, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gertn litezkeen emanaldien

111111,1en erantzukizt



"28 dias despues"

Zuzendaria: Danny Boyle.

Antzezleak: Cillian Murphy, Meagan Burns, Brendan Glesson.

Jim ospitalean esnatu da. Auto istripua izan du eta ez da ezertaz oroitzen. Kalera irten eta Londreseko kaleak erabat hutsik daudela konturatuko da. Batetik bestera noraezean dabilela bizirik dauden beste pertsona batzuekin topo egingo du eta birus hilgarri batez kutsatuta daudenen aurka borroka egiten lagunduko die. Beste arrisku larriagoi ere aurre egin beharrean izango dira.

N

3n



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1949ko otsailaren 27an ateratako argazkia da bera, eta itxura ederreko lagun taldea ageri zaigu bertan, Merkatu Plaza zaharra izandakoaren aurrean. Aspaldiko garaiak izan arren, begira nolako dotore ageri diren Estudiantina Koruko partaideak, pajarita eta guzti! Elgoibarko herriak kanturako zaletasun handia zeukan, eta oso erraz elkartzen ziren honelako talde ederrak. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak.

Lehenengo ilaran, zutik ezkerretik eskumara: **Urban Konde (t), Felix Gabilondo (t), Agustín Zubiaurre (umearekin) (t), Jose Juaristi (t), Roke Gabilondo (t), Jose Ma Mugerza (t)** eta **Andres Juaristi**.

Bigarren ilaran: **Iñaki Konde (t), Enrike Arano (t), Isaak Azpiazu (zuzendaria) (t), Imanol Sodupe (t), Faustino (nabarrikoa), Jose Jauregi, Silvino Gabilondo (1), Rafael Areitioaurtena (argentinarra) (t), Pepe Suarez (*)**. **Jose Izagirre, Jose Zubiaurre, Felix Garcia (t)**, eta atzean hiru gazte.


Hirugarren ilaran: **Antonio Arrillaga (t), Imanol Mendikute, Pedro Beristain (t), Pakorro Ansola (t), Manuel Unzueta, Ramon Ecenarro, Miguel Sanchez, Jose Gurrutxaga, Arturo Zubiaurre, Luis Ma Zubiaurre, Antonio Azpiazu (t), Jesus Ma Koro, Jose Ma Igartua (t), Rafael Mugerza (t), Julian Iriondo eta German Uriguen (t)**.

Laugarren ilaran, eserita: **Mateo Uria (Olaso) (t), Sabin Beristain, Patxiko Etxeberria (t), Pepe Goiartzun, Kontxi Mugerza, Juanito Etxaniz, Florentino Etxeberria (t), Roke Arregi eta Jose Gabilondo (t)**.



ESKERTZA

*2003ko urriaren 14an, 77 urte zituela hil zen
JOSE MARI GIL ZENGOTITAREN sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



1 1 1 111
GOKI ERREFORMAK

1111 • **MIZIN**

Obrak eta proiektuak

Bainurako denetik



**Hidromasajea
adituak**



Ateekin ere lan egiten dugu



Altzariak estilo guztietan



**Bainurako
osagarrietan
aukera zabala**

Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabilioia
Tel.: 943 74 28 80 - 943 74 42 23 - 943 74 46 40
Faxa: 943 74 45 87
20870 ELGOIBAR

ZEZEN-BIDE



Koixeroko B ogiri teorikoo 18 urie beict laino lehen Olkijr0 dezakezul

Or enagailu bidet *teoria ikasteko gela berriB*



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantaisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR